

JARDUERA PROTOKOLOA

SASOIKO ETA NEKAZARITZAKO LANA EUSKADIN

COVID-19



Euskadi-preben
Herri-estrategia
Estrategia de País



01 COVID19-A DETEKTATZEA ETA KONTROLATZEA

Hasi aurretik, babestuta zaudela egiaztatu behar duzu, ziurtagiri hauen bitartez:

- Txertaketa ziurtagiria.
- COVID19aren sendatze ziurtagiria.
- COVID19aren proba negatiboen ziurtagiria.
- EBko COVID ziurtagiri digitala.



02 INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA

Garrantzitsua da **INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA** ulertzea eta zalantzarik ez izatea.



03 KUADRILLA BATEKO KIDE

KUADRILLA bateko kide izango zara, eta **EZ** duzu beste pertsona batzuekin **NAHASTU** behar.



04 SINTOMAK


SINTOMARIK baduzu (sukarra, eztula, haize falta edo beste batzuk) edo kontaktu estua izan baduzu **COVIDA** duten pertsonekin, jakinarazi zure arduradunari eta/edo 900203050 telefonoan.



05 PORTAERA SOZIALEKO ARAUAK

Lanean jarraitu ahal izateko, garrantzitsua da **PORTAERA SOZIALEKO ARAUAK** betetzea, hala nola:

- Mantendu segurtasun distantzia (1,5 m).
- Garbitu eskuak sarri.
- Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.
- Utzi maskarak eta mukizapiak markatutako edukiontzietan.
- Estali sudurra eta ahoa ez tul edo doministiku egitean.
- Erabili behin bakarrik erabiltzeko mukizapiak.
- Saihestu kontaktu fisikoa.
- Sarbidea kontrolatuta eta pilaketarik gabe.
- Ez nahastu kuadrillen artean.
- Errespetatu ibiltzeko fluxuak.
- Zaindu zure higiene pertsonala.
- Ez partekatu janaririk eta edaririk.



06 DESPLAZAMENDUAK

DESPLAZAMENDUAK kuadrillaka egingo dira, nahastea saihestuz, eta ezarritako arauak betez.



07 LANTOKIETAN

LANTOKIETAN (landa, upategiak, pabiloiak).

- Sarbidea kontrolatuta egongo da eta modu mailakatuan egingo da. Saihestu jende pilaketak.
- Egon zure gunean.
- Ez partekatu tresnarik, erabilera indibidualerako dira.
- Garbitu eta desinfektatu tresnak.
- Garbitu eta aldatu arropa egunero.
- Ez astindu arropa kentzean.
- Ez astindu arropa zikina.
- Garbitu eskuak arropa aldatzen duzunean eta bereizi arropa zikina eta garbia.
- Aireztatu leku itxiak.
- Garbitu laneko gainazalak.



08 NOLA GARBITU GAINAZALAK?

- Erabili ura, xaboa edo garbitzaile arrunt bat.
- Sarri ukitzen diren gainazalak badira eta komunetan, aurreko urratsa egin eta gero, desinfektatu honela: Lixiba komertzialetatik abiatuta, honela prestatzea gomendatzen da:
 - > 50g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 25 ml lixiba 1 litro uretan.
 - > 40g/l-ko lixiba komertziala: gehitu 30 ml lixiba 1 litro uretan.
- *Adibide moduan, "zopa koilara bat" 15 ml-ren parekoa da.
- Gainazal delikatuetan %70-95 alkohola erabili daiteke.
- Administrazioak aholkatutako desinfektatzaileak ere erabili daitezke.

09 OSTATUAN

- Bete **PORTAERA SOZIALEKO** arauak.
- Sarbidea kontrolatuta egongo da eta modu mailakatuan egingo da. Saihestu jende pilaketak.
- Lanera iristen zarenean:
 - > Garbitu eskuak ezer ukitu aurretik.
 - > Garbitu eta desinfektatu giltzak, mugikorra, betaurrekoak, etab.
- Ez partekatu ur eta edari botilak.
- Ez partekatu katilu, edontzi edo mahai tresnarik.
- Garbitu eskuak jan eta edan aurretik.
- **AIREZTATU** gutxienez 8 edo 10 minutuz orduero.
- Atera zaborra sarri, eta ondoren garbitu eskuak.
- Saihestu arropa astintzea.
- Covid-19aren kasu baieztatu edo susmagarri bat badago, jakinarazi eta bete **ETXEAN BAKARTZEKO** jarraibideak.
- Garrantzitsua da sarri erabiltzen diren gainazalak garbitzea eta desinfektatzea, hala nola ate eta leihoetako euskarri eta heldulekuak, eskutokiak, barandak, urruneko aginteak, etengailuak, sukaldeko tresnak, komunak, mahaiak, etxetresna elektrikoak, telefonoak, etab.

